

FUNTSEZKO ELKARTEA

ELKARREKIKO LEHIAKIDE EZ DIREN ENPRESEN ARTEKO ALIANTZA

ESTRATEGIKOA: Gure ustez aliantza estrategiko izateko hasieran beste enpresa edo gobernu laguntza izan behar dugu, enpresa txiki bat izango garelako, hau da, gure zerbitzuari ahalik eta etekin handiena ateratzeko eusko gobernuarekin lan egingo dugu. Guk gure zerbitzuak eskainiko dizkiegu haiek pertsona gehiago laguntzeko eta gu lokal edo instalazio bat alokatzeko eskatuko diegu. Horrela, gure enpresa handiagoa denean, instalazio batzuk izango ditugu kanpamendua martxan jartzeko.

Bestalde, "Adidas" enpresarekin aliantza bat lortzen badugu, haiek irudi on bat lortu dezakete gure zerbitzuekin eta gu gimnasioko materialak lortuko ditugu. Horrela, biak izango ditugu onurak.

Azkenik, "Business Angels" zerbitzua kontratatuko dugu. Business Angels-en ekarpenaren beste alderdi garrantzitsu bat, enpresari egindako ekarpenak dira, diruaz gain, ekintzailearen aholkulari gisa denbora hartzen duenean gertatzen da. Gainera, Business Angel-ek inbertitzen duen enpresa garatzen laguntzen du, eta talde ekintzailearen eskura jartzen ditu harreman-sarea eta esperientzia.

